


TXANOGORRITXU



Txanogorritxu amarekin goxatzen ari da.




Amak Txanogorritxuri erraten dio :

« Zure Amatxiren etxera joan behar duzu. Aspertzen da bere etxean bakarrik, orduan maite duen txokolatezko bixkotxa eramanez diozu. Biek elkarrekin, arratsaskari ona egingen duzue. »



Amak, bixkotxa zaku batean ezarria du.

« Zoaz orain, eta kasu egizu bidean. Otsoa aurkitzen baduzu, segi ibiltzen animalia gaizto honi pitxik erran gabe. »



Txanogorritxu Amatxiren etxera joaten da.
Oihana zeharkatzen du.




Bat-batean, otsoa agertzen da :

« Egun on, neska pollita, nora zoaz ? »


« Banoa Amatxiren etxera. Amak egina duen txokolatezko bixkotxa eramaten diot. » dio Txanogorritxuk.

« Eta non bizi da zure amatxi ? » galdetzen dio otsoak.

« Hantxe, urrunago, oihanburuan den etxetoan. » salatzen dio neskek.



Otsoa lasterka, korrika, saltoka badoa
amatxiren etxeraino.





Atea jotzen du eta Txanogorritxuren ahotsa harturik mintzo da :

« Kas, kas, kas... Egun on, Amatxi, ni naiz, Txanogorritxu. »


Amatxik alaiki etxearen barnetik ihardesten dio :

“Bai, zu zara, maitea, aitzina ! »




Otsoa sartzen da eta segidan, kroxk, kraxk eta glup, ahamen batez amatxi irensten du.

Ondotik haren jantziak soinean ezartzen ditu.



Geroxago, Txanogorritxu Amatxiren etxeraino
heldzen da.

Ohartzen da atea irekia dela, eta etxean sartzen
da.



Txanogorritxuri iduritzen zaio gaur Amatxi ez dela usaian bezalakoa. Egia erran, pixka bat bitxia atzematen du. Galdezka hasten da :

« Baina, Amatxi, zer begi handiak dituzun ! »


« Bai, hobeki ikusteko », dio besteak.

« Baina, Amatxi, zer belarri luzeak dituzun ! »

« Bai, hobeki entzutzeko », dio besteak.


« Baina Amatxi, zer aho zabala duzun ! »

« Bai, hola osorik janen zaitut ! » dio otsoak orroaz.



Otsoak, kroxk, kraxk eta glup, ahamen batez irensten du neska gaixoa.


Aserik, lokartzen da.




Amatxiren lagun bat etxe ondoan iragatean,
atea irekia dela ohartzen da. Etxean sartzen da.




Otso lokartua ikusten duelarik, amaxiren lagunak ganibet zorrotz bat hartzen du eta animalia gaiztoari sabela irekitzen dio.



Amatxi eta Txanogorritxu, otsoaren sabeletik ateratzen dira.



Lagunaren eskertzeko, txokolatezko bixkotxa partekatzen dute eta hirurek elkarrekin, arratsaskari ona egiten dute.








Azkenean otsoa zakarrontzira botatzen dute.



Txanogorritxu

Autorea : Xantal Barnetxe
Zuzentzailea : Ikas

Ikas - 2012

	Zakar-untzia
	Laguna
	Amatxi
	Amatxiren etxea
	Oihana
	Otsoa
	Zakua
	Bixkotxa
	Ama
	Txanogorritxu